

TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

2009ko urtarrilla - 30. zenbakia

*Floren Zabala Barturen:
45 urte itsasoan*


*Euskerearen
Jaia 99*

Edurra Bakion

ALKARRIZKETA



JON ARRUGAETA



BOLIBAR

Jatetxea

Benta Alde, 180
Tfnoak.: 94 619 4141
94 619 30 00
48130 BAKIO



EROSLE


Etorkizuna!

Bakio bidea, 50
Tfnoa.: 94 619 49 00
48130 BAKIO

ASKADA

KAFETEGIA

Benta Alde, 70
Tfnoa.: 94 619 4006
48130 BAKIO



ARIMUNE

OSTATUA

Benta Alde, 95
Tfnoa.: 94 619 4022
48130 BAKIO



GAZTELU-BEGI

JATETXEA - OSTATUA

MAKAILOA - ATUNA - ITSASKIAK

San Pelaio Alde, 86
Tfnoa.: 94 619 4924
48130 BAKIO

BERBAURREA

Urte barria, gizaldi barria, milurteko barria, hainbat gauza batera eta eurok gauza bat. "Barri" berba horren atzean etorkizunean itxaropena dago, aurki. Gure bihotzetan itxaropena egon badago, behintzat. Bihar-etzi zer izango, zer jazoko. Arteak hartu ezinik begiratu behar deutsogu etorkizunari. Itxaropenez beteta, baina!

Ez da makala Euskal Herriak aurrean daukan aupadea. Euskal Herriko seme-alabek joko bizian sartu behar izango dogu gure burua. Baina joko horretatik buru tente urteteko zuhur be zuhur jokatu beharko dogu eta, batez be, alkartuta. Txapel bakarria buru asko janzteko nahikoa izan ez arren, ikasi egin beharko dogu, danok burutsik ibili ez gaitzean. Baina horretarako beharrezkoa da itxaropena, etorkizunean itxaropena. Urte zoriontsua izan daizuela!

TXIRRITXOLA**TXIRRITXOLA-30**

2000ko urtarrila (hiruhilabetekaria)

ARGITARATZAILEA

Bakioko Euskera Zerbitzua

ERREDAKZINOIAJoseba Terreros, Gorane Oleaga,
Unai Beitia eta Iniaki Martiartu.**LAGUNTZAILEAK**Anartz Ormaza, Itxaso Urazurrutia,
Jonjo Agirre, Garikoitz Etxebarria,
Ainara Madariaga, Egoitz Garai, Maria Santisteban,
Etor Duoandikoetxea eta Jon Aingeru Goikoetxea.**ARGAZKIAK**Anartz Ormaza, Jorge Busturia,
Kike Martínez eta Iniaki Martiartu.**KOORDINAZINOIA**

Joseba Terreros eta Iniaki Martiartu.

HELBIDEABakioko Kultura Etxea
Urkizaurralde, 28

48130 BAKIO

Tfno.-zkia.: 94 619 40 01 / 619 33 69

Fax-zkia.: 94 619 31 18

ALE KOPURUA:

750 ale

LAGUNTZAILEA

Bakioko Udala


IRARKOLEAGráficas Gaubeka
Tfno.-zkia.: 94 625 02 74
Fax-zkia.: 94 625 52 54
48300 GERNIKA-LUMO**TXIRRITXOLA**

Bakioko Euskera Zerbitzuak babestutako aldizkaria

GAIA**ZER-NON****ORRIALDEA**


Aurrealdea: Jon Arrateren argazkia	1
Iragarkiak	2
Agurra	3
Berbetan: Jon Arrugaetaz	4
Zer deritxozu?: Itsas ibiltokiari buruz	7
Eritxia - iragarkia	8
Zer barri?:	
-Erreka Eguna 99	9
-Bentatik Bizkarganerako bide espaloiak	10
-Itsas ibiltokiko beharrak	10
-Bakioko toponimia	10
-Sare osoa informatizatzea	11
-Santa Katalinara arteko bidea	11
-GURE IRRATIARI laguntzinoa	11
-Bakio UDALBILTZAN	12
-XII. Idazlan Lehiaketaren irabazleak	12
-Gabonetako egitaraua Kultur Etxean	12
-Euskal presoen alde	13
-Bertso afaria zezeilean	13
-Kartel eta logotipo lehiaketak	13
-Euskal Herriko soinu tresnak	14
-Antzekizuna	14
-Ibilaldia kosmosean zehar	14
-Publizitatea eta jostailuak	15
-Sinistuezina..baina egia	15
Argazkitan: Euskerearen Jaia 99	16
Argazkitan: Edurra Bakion	18
Argazkitan: Olentzero 99	20
Gai berezia: Internet home	22
Gai berezia: Garunaren indarra	22
Berbetan: Floren Zabala Barturen	23
Zaharrak barri	24
Zuhur ibili	25
Munduan zehar: Eskoziako lorea	26
Baserria: Barturen	27
Euskerea: Bakioko euskerea-8	28
Taldeen txokoa:	
-Bakio Surf Taldeagaz alkarrizketea	29
-ALAITASUNA Pilota Taldea	29
-Gurasoen Alkartea	29
-ITXAS-ALDE	29
-Bakio Kirol Taldea	29
-Bakioko Abesbatza	29
Kultura leihoa:	
-Xiberoko Maskaradea	30
-Sinistuezina..baina egia	30
-Ipuina	31
-Bakioko liburutegiaren txokoa	31
-Eritxi kulturala -olerkiak- iragarkia	32
Danetarikoak:	
-Datozanak	33
-Barregaiak	33
-Badaezpadako jakingarriak	33
-Ezet jakin!	34
Iragarkiak	35
Atzera begira	36

TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitako esanik zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino.



BAKIOKO UDALAK
diruz lagundutako aldizkaria

Argi dago gaur eguneko gizartean errealitatearen azterlan partzialak, galdesortak, inkestak, ikerlanak, estatistikak eta datuak behar-beharrezko baliabide eta tresna bihurtu dirana, inguratzen gaituen egoera aldakorrek ulertu eta konponbideak planteatzeko. Euskal Herrian badira arlo horretan jarduten daberen hainbat enpresa. Horreetariko bat SIADECO dogu eta bertan bakiotar bat dabil beharrean: Uribarriko Jon Arrugaeta. Gai honen garrantzia gogoan izanik, berari giro nasai eta patxadatsuan itaun batzuk egitea interesgarria izango zala begitandu jakun. Hona hemen, bada, beragaz izandako alkarrizketa.



TX: SIADECO kooperatibako kidea zaitugu. Azalduko deuskuzu, mesedez, zertan datzan erakunde honen beharra?

Jon Arrugaeta: SIADECO 1967. urtean sortutako ikerketa alkartea da. Harrezkero, arlo sozio-ekonomikoan gai asko lantzen izan doguz: origintza eta lurralde antolaketa, komunikabideak, hezkuntza esparrua, kultura esparrua, gazteria, drogamenpekotasunak, euskera, hau da, gizarteko arlo sektorial ugari lantzen doguz. Horretarako, formazio ezberdinetako lankideak gagoz: ekonomilariak, soziologoak, zuzenbideko lizentziatuak.... Gure beharrean ikerketarako metodologiak garrantzi handia dauka, azterketak egiteko behar dogun informazio eta datu guztiak horren bidez ataraten doguzalako. Gero datu horreek aztertu, arazoak eta urtenbideak ikusi eta proposamen zehatzak egiten doguz. Horregaitik, guk egiten doguzan iker-

lanak aplikatuak dira, gizarteko arazo zehatzak aztertu eta konponbideak topatzeko egiten doguzalako.

TX: Hori horrelan izanik, aukera ezin hobeak daukaguz gizarte honetako unibertso ezberdinak ezagutzeko. Behargin modura errealitatea hobeto ezagutu eta interpretatzeko bide gehiago eukiko dozuez, ezta?

J.A.: Beharbada, lar esatea da, baina, bai, hainbat errealitate ezagutzeko aukera eukiten dogu. Ganera, errealitate oso zehatzak izaten dira, ze lehen esan dodan moduan guk azterketa aplikatua egiten dogu. Gogoan izan behar da, gure bezeroek beti eskatzen deuskuela errealitate jakin bateko azterlan zehatza, leku jakin baten eta gai edo arazo jakin bateri lotuta. Horrek, jakina, leku batetik bestera arazoak zelan aldatzen diran ikusteko aukerea be emoten deusku eta, holan, gai edo arazo beraren inguruko hainbeste bariante ikusikeran, estereotipoak eta aurreiritziak be gaintitu egiten doguz. Euskal Herria txikerra izango da, baina gai beraren inguruko azterlana herri edo toki diferenteetan egiten dogunean, sarritan ikusten dogu emoitzak eta ondorioak ezberdinak dirana, leku bakoitxak bere ezaugarriak daukaz eta. Alde horretatik, gure beharra oso interesgarria da, beti ibiltzen garalako errealitate ezberdinak aztertzen.

TX: Dana dala, badago nahiko agiriko kontraesana zuk esandakoaren eta gertatzen danaren artean. Ze, horrelako beharrek aurreiritziak

«SIADECOn atzetik ez dago ezelango talde ekonomiko edo politikorik, bertako behargin kooperatibistak baino»

Jon

ARRUGAETA

Agaz

BERBETAN

gaintzeko aukerea emonda be, horrelako lanetan finkatu eta oinarritutako errealitateak sano estereotipatuak izaten dira.

J.A.: Gure beharrean oso garrantzitsua da gizartetik hartzen doguzan datuak behar dan moduan sistematizatzea eta sailkatzea, eta hori ondo egiten bada, horrek ez dauka zerikusirik estereotipoakaz. Nik horren ganean esango neuke gurea lako enpresetako profesionalen arazoa baino gehiago komunikazio arazoa dala. Nik SIADECOn egiten doguzan azterlan eta ikerketen inguruan egin daiket berba. Kontua da, behar bat egin eta gero, lanok plazaratu eta gizarteratzen diranean, beste bi-tartekari batzuk sartzen dirala tartean eta guk ezin dogu hori kontrolatu. Batzuetan, gure ikerketak hartu eta han esaten diran gauza batzuk hartu eta beste batzuk baztertzeko tentazioa egon leiteke. Beste batzuetan, jendeak gauzak errez eta arin ulertzeko, azterketen ondorioak larregi sinplifikatzen dira.

TX: Lagun soziologo batek beti esaten izan deust, lan soziologiko guztiak beharra agindu dabenen euskarri edo atxakia besterik ez dirala. Baieztapen hori zenbateraino hartu leiteke egiazat?

J.A.: Guk, behintzat, ez dogu inoiz lan bat egin, aurretiaz hartutako erabagi batzuk tapatzeko edo arrazoa emoteko. Egia da, bezero batek lan bat eskatzen deusunean, erabagi batzuk hartzen laguntzeko erabili gura dauana, baina horrek holan izan behar dau. Beste gauza bat da, esatea erabagi hau hartu gura dot eta zuek (SIADECO) prestatu eidazue hori egin behar dala dinoan txosten teknikoak. Hori guretzat onartezina izango litzateke, baina, horrez ganera, gure bezeroek ez deuskue inoiz holakorik eskatu. Ganera, badago beste aldaera garrantzitsu bat: SIADECOn atzetik ez

dago ezelangoko talde ekonomiko edo politikorik, bertan behar egiten dogun kooperatibistak baino ez.

TX: Aitatu zein bezala oraintsu arte egin dozeuzan beharrik interesgarrienak?

J.A.: Behar interesgarriak, esate baterako, komunikabideen arlokoak. Guk ETBko programen azterketak egiten izan doguz eta baita aldizkari ezberdinenak be, jendeak zelan baloratzen dauazan aztertze eta programa eta aldizkari horreen audientzia handitzeko sartu leitekezan barrikuntza edo aldaketak proposatzeko. Lan honek, adibidez, sano interesgarriak dira, jendeak komunikabideen produktuak zergaitik kontsumitzen edo zergaitik kontsumitzen ez dauazan erakusten deuskulako. Era berean, erakutsi egiten


deuskue komunikabideen inguruan baliabide eta diru asko erabilten dirana audientziak handitzeko, azken baten, helburua jendeak norberak esaten dauana entzutea edo norberak egiten dauana ikustea edo irakurtea dalako. Horrez ganera, urigintzearen ganeko gaiak be oso inportanteak dira, arlo honek erakusten daualako etxebizitzaren eta ekipamenduen antolaketak zelango eragina daukan

gizarte bizitzan. Herri bateko arau subsidiarioak aztertze deitzen deuskuenean guk urigintzea gizartearen ikuspegitik aztertzen dogu. Horrek udalherri bateko alderdi ezberdinen artean dagozan diferentziak erakusten dauz, alderdi bakoitzaren berezitasunak, ez bakarrik ekipamendu, parke edo etxebizitzaren aldetik, baita bakoitzean bizi diran pertsonen aldetik be. Donostiako kasua, adibidez, esanguratsua da. Gutariko edonori itaundu, zer deritxon Donostiari eta erantzuna izango da, ba, uri polit-polita dala, burura Kontxa, Ondarreta, Alde Zaharra, Igeldo...etortzen jakuzalako. Baina Donostian bertan badagoz beste auzo batzuk errealitate horregaz zerikusirik ez daukanak: Altza, Bidebieta, Martutene, Loiola auzoak. Orduan, horrelako azterketak eginkeran, uri edo herri baten datuak hartu eta banandu egiten doguz ezaugarri ezberdinen arabera eta hortxe ikusten dira zelango diferentziak agiri diran bizi kalitateari eta bertako biztanleen ezaugarriei jagokenez: berdeguneak,

ekipamenduak, etxebizitzako metro karratuak, bertan bizi diranen ikasketamailea, lan egoera, adina, jatorria...

TX: Argi dago gaur egunean Bakio nahiko desegituratuta dagoana, orain dala 35-30 urte inguru egindako urigintza plangintza txar baten ondorioz. Horrelako beharretan esperientzia daukazuela aintzat harturik, zeure eritziz zer egin leiteke egoera hau hobetzeko?

J.A.: Bai, Bakioko egitura urbanistikoa, batez be, 60-70eko hamarkadetan erabili zan urigintza ereduaren ondorioa da. Hemen Mediterraneo aldeko herri turistikoan antzeko zeozer sortu gura izan eben. Sasoi haretako urigintzak herria desitxuratu eta, ganera, ez ebazan kontuan



euki herriko ezaugarriak eta bertoko herritarren asmoak. Haretzearen inguruan etxe bloke handiak eregi ziran eta apurka-apurka herri dinamika goitik behera joan zan, inguru horretara gero eta jende gehiago eta gero eta ostalaritza eta merkataritza establezimendu gehiago joan ziralako. Etxebizitza kopurua asko handitu zan Bakion, nahiz eta EUSTATen 1996ko datuek esaten dabenez, gehienak udako edo asteburuetarako baino ez diran erabilten: lautik bat dira urte guztian okupatuta dagozan etxeak. Ordurik hona, gauzak aldatu egin dira, baina nire ustez, aspaldiko kontu honek, oraindino be, eragina dauke gaur eguneko herri bizitzan. Gero, horrez ganera, herritarren bizimodua be sano aldatu da lehendik hona. Lehen, beharbada, jendea gehiago ibiltzen zan edo ikusten zan herrian, jendea gaur baino askoz gitxiago mugitzen zalako. Ze, datu zehatzik ez badaukat be, gaur egun Bakion bizi arren, beharrea egunero kanpora joaten diranak asko izango dirala pentzetan dot eta aurrera begira, jokaera hau, beharbada, indartu

«Bakiotarren herri bizitza bizkortu eta euren arteko hartuemonak indartzeko, jendea alkartu eta batzeko aukerak sortu behar dira»

egingo da. Etxe barriak egin eta herrira jende gehiago etortzen bada bizitzen, beharbada, Bakio lo egiteko herri bihurtuko da, baina horren eskutik zerbitzu batzuk zabaldu eta barriak sortzeko aukerak be handiagoak izan leitekez. Kontua da, ea etxe horreek udan bakarrik ala urte guztian erabiliko diran. Honegaz guztigaz esan gura dot,

bakiotarren herri bizitza bizkortu eta euren arteko hartuemonak indartu gura badoguz, oso inportantea izango dala, jendea alkartu eta batzeko aukerak sortzea, jendea herriari gehiago lotzea eta horretarako herriaren neurriko urigintza antolatu behar dala uste dot. Azken baten, urigintza herrigintzearen zerbitzuan ipini behar da. Nire ustez, herriaren bizi kalitatea hobetzeko oso garrantzitsua izango da Bakioren ezaugarrietara egokitutako azpiegiturak sortzea: oinezkoentzako ibilbideak, herrian zehar bizikletaz ibilteko moduko bide gorri sarea eta herriaren dinamika eta hartuemonak erakarri eta bizkortzeko dauazan esparru edo gune nagusia. Honerik lotuta, herritarren bizitzaren eta ingurunearen kalitatea jagoteko kotxeentzako azpiegiturak egiterakoan oso garrantzitsua izango da trafikoak herri barruan euki leiken eragina edo inpaktua ahalik eta gehien gitxitzea.

TX: Beraz, etorkizunari begira zeintzuk dira Bakiok euki daikezan urtenbideak?

J.A.: Urtenbideak ezagutzeko, lehenengo eta behin, datuak hartu eta diagnostikoa egin behar da: bakiotarrek zer pentsatzen daben, erakundeen asmoak zeintzuk diran, herriko arlo ekonomikoa zelan dagoan. Nik une honetan ez daukat horren barri zehatzik. Edozelan be, nekazaritza arloan zeozer bultzatzeko aukerarik dagoan ikusi beharko litzateke, baserriarren beharrik eta asmoak zeintzuk diran, baserriaren bidaragarritasun sozio-ekonomikorako baldintzak eta abar. Hori guztiori, baserrian

behar egiteko interesatuta dagozan guztiak aztertu beharko litzateke, ze makina bat asmo eta proiektu egonda be, ekimen pribatua ezinbestekoa da edozein arlo ekonomiko bultzatzeko. Izan be, baserriarren aldetik gauzak garbi ikusten ez bada eta euren inplikazioa lortzen ez bada, ahalegin guztiak alperrekoak izango dira. Orduan, ikusi egin beharko litzateke nekazaritza eta baserri mundua zuzpertzeko modurik dagoan. Industria arloari jagokonez, interesgarritzat jotzen dot industria gunetxuren bat bultzatzea, enplegua herrian sortu eta jendeak bertan behar egiteko aukerea euki daian. Beste kontu bat da, ekimen pribatua, hau da, inbertsinoa herrira zelan erakarri, ze gure inguruko herriek horretarako baldintza hobekak daukez eta orduan ez da erreza izango. Baina ezin da albo batera itzi, horrek herritarrei beste lotura bat emoten deuselako herriagaz.

Gero, hirugarren sektorean eta zerbitzuetan ikusten da urtenbiderik garbiena, baina Bakioko eskaria batez ere, une honetan, urte sasoiako epe labur bateri, udari, jagoko. Beraz, helburua eskari hori urte osora zabaltzen joatea izango litzateke, baina, lehengora bueltatuz, horretarako, gaur egun ez dagoan gitxienerako masa kritiko bat behar da biztanleen aldetik.

TX: Azkenik, SIADECOK beste makina bat beharren artean, euskerearen egoera aztertzeko metodologia aspaldian finkatu eban. Gai honen inguruan udalerrri askotan egin dozu behar, bai eta Bakion be. Bakiotar modura euskerearen etorkizuna zelan ikusten dozu herrian?


J.A.: Plazaratzen diran datuak, behar bada, baikorregiak dira, jakin-maileari buruzko datuetan oinarritzen diralako. Egia da, era berean, D ereduak lan esker ga egin dauana eta gazteek hizkuntzeagaz gero eta hartuemon handiagoak daukezana maila akademikoan. Dana dala, eguneroko hartuemonetara jo eta

benetako erabilereari buruzko datuak batu doguzanean hainbat udalerritan, jakin-maila eta praktikearen artean alde handia dagoana ikusi dogu. Eta horixe bera da Bakion be nik igarri egiten dodana: jakin-maila %67 ingurukoa da, baina gero kaleko erabilera askoz be txikiagoa dala esango neuke. Horren zergaitiak be honaxekoak izan leitekez: batetik, euskaldunen dentsitatea, euskeraz berba egiteko oso inportantea dalako euskaldunez osotutako taldeak izatea. Bestetik, horrez ganera, euskereak erabilgarria eta operatiboa izan behar dau, jendeak, euskeraz egiteko orduan, bere buruagaz gustura egon behar dau. Eta hor dago kontua, ze burua eta bihotza oso euskaltzale daukaguz, baina sarritan praktikan asko kostatzen jaku euskerea erabiltea. Gaur egun etxeko transmisinoak, neurri baten, baino ez dau funtzionatzen: umeari txikitzen euskeraz egiten jaku, baina umeak etxetik urten eta herriko dinamika erdaldunagaz topo eginkeran, erderara jotzen dau eta erdere

«Buru eta bihotza oso euskaltzale daukaguz, baina sarritan praktikan asko kostatzen jaku euskerea erabiltea»

sartzen dau etxe barruan. Ez hori bakarrik, sarritan gurasoak euskaldunak izan arren be, gure artean erderaz egiten dogu eta etxean bertan seme-alabei erderaz egiten deutsegu. Dana dala, esan egin behar da oraindino Bakiok aukera handiak daukazala horreri, neurri baten, buelta emon eta agozko erabilera handitzeko. Bakiotarrok argi eta garbi euki beharko dogu egoera hau aldatzeko bestelako dinamika baten sartzea guztiz bideragarria dana. Lau puntu dira, beraz, gitxien-gitxienik kontuan hartu beharko litzatekezanak: etxe barruko hartuemonetan euskera gero eta gehiago erabilteko ahaleginak egitea; taldeetako dinamika euskeraz gauzatzen hasteko bideak jorratzea gune euskaldunak sortuz; ahal dala, helduen astialdiko eta umeen olgeten jarduerak euskera hutsean bideratzea, eta Bakioko euskera bizia gogoan izatea, hizkuntza komunikatzeko tresna bat dalako baina, aldi beratan, geure herriko izakerearen ezaugarriak nagusienetarikoa. Horregaitik, edadekoen eta gazteen euskerearen artean jarraipenak egon beharko leuke, are gehiago aintzat hartzen badogu gure zaharren euskerea benetako eredu linguistikoa dana kalitate eta adierazgarritasunaren aldetik.

Joseba TERREROS



Zer deritxo zu?

Bakioko pasealeku barria dala-eta, hainbeste zurrumurru nahiz esamesa darabilgu herritarrok. Ederto dagoala batzuk, haretzea jaten dauala beste batzuk, Isabel Tocino pozik etorriko litzakela handikoek,... Halan da ze, auzia behin betiko argitzeko asmoz, TXIRRITXOLako kazetari ausartok kalera jo dogu, herritarren ahotsa geure aldizkari ospetsuan ozen agertu daiten. Honako itaun zuhurrak egin deutseguz:

Pasealekua zelan lotu dan gustatzen jatzu?




Mari Karmen OLAZARAN

Ez zait guztiz gustatzen, zeren eskudela eta farolak ez ditut gustuko.




Karmele URIARTE

Badaude gauza batzuk gustuko ez ditudanak: palmondoak. Beste guztia ondo dirudit. Jesarlekuak itsusiak dira.



Kaitin AMORRORTU

Hasiera batean, nahiago nuen ez egitea, baina orain eginda dago eta ez da itsusia. Txakurrekin ezin ibiltzea ez zait gustatzen.



Julio RUIZ

Nik pentsatzen nuen baino politagoa geratu da. Eskudela nahiz faroletan argi dago Guggenheim eragina delakoa. Bakioko hondartza gero eta estuago geratzea ez zait gustatzen.



**Irantzu NUÑEZ eta
Bego MAKAZAGA**

Guztiz eroso ez dela pentsatzen dugu. Gehiago gustatuko litzazkiguke eskuburdina edukitzea eta ondoan atzeal dedun egurrezko aulkiak. Petril barik ibiltokia zabalago geratuko litzateke.

Jonjo AGIRRE



Amaia AGIRRE

Orokorrean, ederto lotu da. Farolak eta aulkiak "star trek" filmeko "dekoradutik" atara badabez be.

«Ez nekian baino, hoba dok banekian.»

OHARRA:

Arlo honetara bialduko diran eritxiek izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz.

Beste aldetik, ez dogu irain-garrizat jo daiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izen edo irudiari kalte egin leikionik be.

TXIRRITXOLAREN TZAT...**ALAITASUNEZ**

Urte barrian sartuta gagoz, baina ez dakigu ba, joandakoaren aldean igarriko ete dan. Igaz Olentzerori eskatu geuntson frontoi barria eta, egia esan, hori eginkeran itxaropenak biztu jakuzan. Badaezpadan baina, aurton be barrian gogoratu beharko deusogu, ahaztu ez dakion. Eta...ez da, gure udaletxean borondaterik ez dagoanik, ez eta gitxiagorik be. Haregaz bakarrik, baina, ez da nahikoa, aurki. Negua luzea izaten da eta eguraldiaren okerkeriak laster igarriko doguz frontoian. Pelotaleku baino laprast-leku edo laprasturi emoten dau. Ez, negurako ez dauz behar besteko baldintzak beteten. Makinatxu bat ahalegin egiten dogu eskualdeko txapelketak antolatututen edo herriko umeakaz entrenamenduak egiten, baina euri apur bat egin, eta bertan behera itzi behar izaten dogu antolatutakoa. Hau ez da txarrena izaten, pasetan dogun lotsea baino: erbestetik datozala eta olgatu barik atzera joan behar, esate baterako. Honegaz ez dogu esan gura erreta gagozanik, ze "ALAITASUNAn" su-garrak apur baterako biztuta egongo dira, baina buru berotzea ez deusku inork kenduko.

ALAITASUNA Pilota Taldea

ERREKA EGUNA BAKION

Erreka gure herriko bizia da, zaindu beharra dago eta horregatik urtero-urtero Urkitza ikastetxeko umeak erreka garbitzera doaz. Urte bakoitzean, erreken zati desberdin bat garbitzen da.

Pasa den urtean, hau da, 1999ko azaroaren 14an, erreka nagusiaren beheko tarteko zati bat garbitu zuten. Toki hori Bakioko jaiak egiten diren lekuaren ondoan dago, hau da, probaleku aurréan. Egun horretan ume, andereño eta udaletxeko behargin askok hartu zuten parte.

Jendea errekarara ailegatu zenean, udaletxeko beharginak eskularruak eta zakuak banatu zituzten denen artean.

Zikinkeria handia zegoen, batez ere, jaietako edalontziak, mozorroak, etab.

Batzuek lohikeria batzen zuten bitartean, beste batzuek errekarako horma batean "ERREKA ZAINDU" idatzi zuten.

Gutxi gorabehera, ordubete igaro zenean, 17 zaku zikinkeria atera zituzten.

Ondoren, errekatik irten ziren eta bakoitzari ogitarteko bat, edari bat, kamiseta bat eta liburu bat eman zizkioten.

Oso ondo pasatu zuten, baina oraindik ez dute bukatu, erreka askoz hobeto jagon beharra dago eta.

Urkitzako 5. eta 6. mailako ikasleak

TABAKO KULTUR ETXE ETA UDALETXEAN

Tabakoa kalte-kaltegarria dana ez jako inori ostenduten. Norberak erretan badau, ba hor konpon! Baina zer da, norberak inoren tabako kea, gura ezda be, erre behar dauanean? Hor dago kakoa.

Erretzaile pasibo bihurtuten da norbera, eta horregaz batera, norberari osasuna laskitu egiten jako eta apurka-apurka bera galdu eragin be. Bai, erretzaile danari egiten deutson besteko kalte egiten deutso tabakoak erretzaile pasibo edo behartua danari be.

Eusko Legebiltzarrak lege bi onartu ebazan tabakoaren aurka edo, hobeto esanda, guztion osasunaren alde egiteko, bata, 1988koa, eta, bestea, 1998koa. Lege biok hainbat lekutan galazoten dabe erretea, esate baterako, haizebide nahikorik ez daben toki publikoetan, leku itxietan egiten diran ikuskizun publikoetan,..., batez be, 18 urterik beherakoak egoten diranetan.

Kultur Etxean zein Udaletxean hainbat leku itxitan erretan da tabakoa, ezelangot muga edo neurri barik, berbarako: batzar geletan, bideo gelan, entsaio gelan, erakusketa gelan, ibiltokietan,... Legearen aurka erre egin egiten da, zein erre egitea onartu egiten da, besteko barik.

Han ibilten garanon osasun eskubidea jagon behar da. Zelan? Erre egiteari galazoa eta legea ezarriz. Agintarien eskuetan dago azken hau. Halan egin daiela. Hori izango litzake, bada, idazki honen helburua eta eskabidea.

Iniaki Martiartu

M.^a Angeles Abio Uriarte

JANARIDENDA

Benta Alde, 143
Tfnoa.: 94 619 43 10
48130 BAKIO

Berton zure iragarkia argitaratu ahal izango dozu.



ERREKEA eguna 99



Urte guztietan lez, aurtan be ibili dira Urkitza ikastetxeko umeak **Ojaorta** errekea edo herriko erreka nagusia garbituten.

Joan dan zemendiaren 14an, erreka nagusiaren goiko alderditxu bat garbitu eben, Tabernalde ondoko alderdia, hatan be. Han ibili ziran, jo ta ke, ume, andereño eta udaletxeko behargin batzuk errekan egon ziran sastarrak batuten. Esan behar da, benetan lohikeri handia bertakoa! Danetariko sastarrak. Halan da ze, makinatxu bat zaku bete ebezan euratzaz.

Urtean-urtean ekintza hau egin arren be, urtean-urtean egoten da errekea sano lohituta. Errekea jagon behar dogu, askoz hobeto baina. Guretariko bakotxak. Izan be, herriko ur-zana dogu, eta ez lebarik gitxikoa, gero!



Bentako plazatik Bizkarganera doan bidean espaloiak

Bentako aparkalekutik Bizkarganera doan bidearen alboan espaloiak egingo dira eremu horretako urbanizazioari amaierara emoteko asmoz. Era berean, obra horreek aprobetxatuz, aparkalekuko gunea apur bat handitu ahal izango da.



Itsas ibiltokia zezeila- ren amaieran edo mar- tiaren hasieran inaugu- ratuko da

Itsas Mugarte Sailak udal honeri jakinarazo deuto itsas ibiltokia zezeilaren amaieran edo martiaren hasieran inauguratzeko asmoa daukala. Horrelan, obrea behin betiko amaitzeko zerbitzuguneko lanak baino ez dira gauzatu beharko.





Bakioko toponimia aztertze- ko aurreproiektua

Kultur eta Euskera Batzordeak aztertzen dabilz Bakioko toki izen guztiak (etxeak, mendiak, errekek, auzoak, trokak, sakostak, soloak, bideak, labarrak, baseleizak, eraikinak...) aztertu eta finkatzeko lana zelan bideratu. Ez dago azaldu beharrik lan honen garrantzia: herriko kultur ondarea jagon eta etorkizunean egin leitekezan urbanizazioei jatorrizko izena emoteko aukerea izatea. Izan be, badira urte gitxitan agoz aldatzen dabilzan toki izen ugari: «El Mazanal» Sagarlandaren ordez, «El Calero» Karabiagaren ordez, «La Torre del Sol» Birjilandaren ordez eta beste hainbat lekuizen. Halan da ze, lehengo eta behin izenen agozko batuketara egin beharko litzateke, ostean, informazio hori guztiori mapetan kokatu, digitalizatu, idatzi eta azkenik, izenaren forma normalizatua proposatu. Gero, Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari emon beharko litzakie horren barri, eurak be izen berberak erabilteko. Lana egiteko epea, urte bikoia izan leiteke eta baserri eta etxe gehienetan batu beharko litzateke informazioa.

«Agindua bat, emona bi, aginduagaz pozik egon hadi.»

Udalak Bakioko sare guztiak informatizatzen dabil

Udalak Bakioko sare guztiak (ura, gasa, zuntz optikoa...) informatizatzeko beharri oratu deutso. Horren helburua garbia da: haren kokapen zehatza ezartzea, lanak errazte aldera eta obrak burutzeko beharra bizkorrago bideratzea.



Iparaldeko GURE IRRATIari laguntzinoa

Bakioko Udalak diru laguntzinoa emon deutso Iparaldeko GURE IRRATIA (Lapurdin) deritxonari. Ekintza horren bidez, Udalak euskarearen aldeko politikea argi eta garbi itzi gura izan dau. Izan be, GURE IRRATIA euskeraz oso-osoan egiten dauan irratia da. Iparaldean euskera hutsez egiten daben beste irratia bi be badagoz: Irulegiko Irratia (Nafarroa Beherean) eta Xiberoko Boza (Xiberoan).

....

Errepidetik Santa Katalinarako tartea martian hasteko asmoa

Bulego teknikoaren esanetan, errepidetik Santa Katalinara doan tartea urbanizatzeko beharri martian oratuko jake. Horrelan, zubia bota barik, bidea handitu eta Ibarra etxearen alboan autobus geltokia egokituko da.

TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAN iragarkiren bat imini gura dozentzako salneurri barriak. Salneurriok 2000ko urtariletik aurrera dagoz indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkeron, deitu bei arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94.6193369.

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale 2 / ale1
8rena (125 x 85)	10.000	7.500	5.000
16rena (87 x 66)	7.500	5.000	3.750
32rena (66 x 40)	5.000	3.750	2.500



Bakio

Euskal Herri osoko udalak alkartuko dauazan nazino erakundean sartutea erabagi eban Bakioko Udalak aurtongo urtarrilaren 15ean. Eguerdiko hamabi-hamabietan hasi eta udaletxeko Batzar Aretoan egindako 10 minutuko osoko batzarrean, bertan batu ziran EAJ, EH eta EA alderdien udal ordezkariak, ago batez, herria UDALBILTZAN sartuteari baietz esan eutsen. **Euskal Herriak aurrera egin daiala!**

UDALBILTZAN

Bakioko XII. Idazlan Lehiaketeta

Aurtengo lehiaketako 22 idazle eta irabazleen izenak hurrengo honeexek doguz:

Lehenengo mailan (7 urtetik 10 urtera):

Ainize Martinez
Tomas Madariaga
Ioritz Uriarte
Mikel Basterra
Beñat Elgezabal (irabazlea)

Bigarren mailan (11 urtetik 14 urtera):

Iraide Ormaza
Samadhi Letelier
Encarni Fernandez
Markos Mardaras
Oihane Longarai
Irati Barrenetxea (aitamen berezia)
Lainoa Bilbao (irabazlea)

Hirugarren mailan (15 urtetik 18 urtera):

Lide Madariaga
Anartz Ormaza
Oier Bilbao
Iñaki Aretxabaleta
Gotzone Uriarte (irabazlea)

Laugarren mailan (19 urtetik aurrera):

Naiara Ugalde
Ainara Madariaga
Karme Uriarte
Birjiñe Bilbao (irabazlea)



Gabonetako egitaraua Kultur Etxean

Abenduaren 28an eta 29an, 4 urtetik 7 urtera bitarteko umeentzat tailerrak, arratsaldeko 4:30etatik 7:30etara. Egun bietarako txartelak 500pta balio eban.

Abenduaren 28an eta 30ean, eta urtarrilaren 4an eta 5ean, Gazteen-tzako Zinea Kultur Etxeko bideo-gelan, arratsaldeko 6:00etan.

Urtarrilaren 2an, Gabonetako Parkea probalekuan, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 2:00etara eta arratsaldeko 4:30etatik 8:00etara. Sarrera doarik. Berton rokodromoa, windsurf jokoa, puzgailuak eta txikientzako ludoteka egon ziran.

Erakusketak:

- **Abenduaren 15etik 30era arte**, Jose Ignacio Loboren argazkiak.

- **Urtarrilaren 3tik 14ra arte**, Jorge Garciaren marrazkiak.



BAKIOKO UDALA
(BIZKAIA)

Bakioko talde politikoeak (EAJ, EH, EA) bakiotar guztioi dei egiten deusuegu, BIHAR ABENDUAREN 17AN, UDALETXE AURREAN, GAUEKO 8:00ETAN, «Euskal Presoen Eskubideen Alde» lemapean egingo dan isileko agerraldira etorri zaitezzen.

Bakion, 1999ko abenduaren 16an.
Bakioko EAJ, EH eta EA

Euskal espetxeratuen eskubideen alde

Euskal presoen eskubideak urrutu egiten dabez behin eta barriz Espainia eta Frantzia aldeko espetxeetan, euren legeek bestetara agindu arren be. Zuzenbakokeria hori ikusi eta onartu ezinik, Bakioko alderdi politikoeak (EAJ, EH eta EA), hirurak bat eginda, euren hasarrakuntza bizia eta protestarik sendoena agiri be agirian itzi gura izan eben. Hori egin ez eze, herritar guztiei isileko hamabosterik behineko agerraldietara eurakaz bat egiteko be deitu deutsee. Agerraldiok udaletxearen aurrean barikuetan, arratsaldeko 8.00etan egiten dira. Egunotan, ekimenok ugari be ugariak dira Euskal Herrian zehar. Entzungo ahal deuskue Madrilen: **Euskal atxiloak etxean orain!!**



BAKIOKO UDALA
(BIZKAIA)

Bakioko talde politikoeak (EAJ, EH, EA) bakiotar guztioi dei egiten deusuegu, ABENDUAREN 31N, BARIKUAN, UDALETXE AURREAN, GAUEKO 8:00ETAN, «Euskal Presoen Eskubideen Alde» lemapean egingo dan isileko agerraldira etorri zaitezzen.

Bakion, 1999ko abenduaren 29an.
Bakioko EAJ, EH eta EA

Bertso afarirako deialdia

Hemengo honetan jakinerazoten deusuegu datorren zezeilaren 25ean, ilundiko 9.00etan, urtero aratoste sasoi horretan egiten dogun lez, bertso afaria eukiko dogula. Oraingo honetan, Jon Maia eta Jesus Mari Irazu aukeratutako bertsolariak ekarriko doguz. Afaria Urizarretako Eneperi jatetxean egingo da. Halan da ze, zuhur ibili kartelak imini orduko zeuon izena Kultur Etxean emoteko. Gai jartzailea: Josu Goikoetxea.

KARTEL LEHIAKETEA

Bakioko Udalak 2.000ko San Jose jaietarako kartela lehiaketearen bidez aukeratzeko deialdia zabaldu eban urtarrilan. Sari bakarra 75.000 pezetakoa izateko zan eta lanak aurkezteko epea zezeilaren 14an amaitzen zan. Oinarriak eta kartelak aurkezteko lekua: Bakioko Kultur Etxea.



LOGOTIPO

LEHIAKETEA

Bakioko Euskera Batzordeak beraren logotipoari buruzko lehiaketea antolatu dau. Lan bakotxa DIN A4ko orri bitan agertu behar da, bata koloredun eta bestea zuri-baltzean. Honez ganera, gutunazal txiki baten, egilearen zehaztasunak jakitera emon behar dira. Epea urtarrilaren 12an amaituko da. Saria 20.000 pta.koa izango da.

BIZITZEAREN NEURRIA

Narra _____ hiru urte

Hiru narraldi _____ txakurra

Hiru txakurren _____ mandoa

Hiru mandoren _____ gizona/andrea

Hau zeure iragarkirako lekua izango da.



Euskal Herriko Soinu tresnak



Euskal Herriko soinu tresnen inguruan berbetan eta euretariko batzuk zelan jotzen daberen erakusteko hurreratu ekigun Juan Mari Beltran gipuzkoarra. Kultur Etxeko aretoa beteta egoan urtarrilaren 28an, eta ordu bitik gorako saioan danetariko jakingarriak eta doinuak entzuteko aukerea izan genduan. Benetan interesgarria! Entzuleek eurrez egin eutsuezan itaunak. Bakioko entzuleen aldeko erantzun beroa zala-eta, poz-pozik egoala esan euskun Juan Marik. Euskal Herrian arlo horretan gehien dakienetarikoa da, gaur egun, Juan Mari Beltran. Juan Marik TXANBELA euskal folka egiten dauan musika taldekoa da.

Antzez kizuna



Urtarrilaren 14an, eskolako oktogonoan, Zeanuritik etorritako «Uribeko Antzerki Taldea» -k saio bi eskaini euskuzan:

«Amama Benidorretik»
«Kaka Trosko»

Lehenengo antzezlana 20.15etan hasi zan eta sarrera doarik izan zan. Antolaketa lanak Bakioko Euskera Batzordeak bete ebazan.




Ibilaldia KOSMOSean zehar



Urtarrilaren 25etik zezeilaren 4ra Kultur Etxeko aretoan ikusgai egon dan erakusketearen argazki bat dakargu hemen alboan. Kosmos-aren ingurura eroan gaitu erakusketa horrek. Gure lurra txiki lotu dala,

kosmos-ak bere barruan gordeten dauazan isilpeko eta ezkutukiak zeozelan gureganatu gura izan dabez erakusketearen bitartez.



PUBLIZITATEA eta JOSTAILUAK

Zemendiaren 25ean, jostailuei buruzko berbaldia euki genduan Kultur Etxean. Bertan, jostailuak dirala-eta, hainbat gaitan sakondu eben. Berbaldi honetara etorri ez zinenentzat zerrendatxu hau aitatzea interesgarria dana ikusi dogu eta hona ekarri deutsuegu:

Jostailuak:


- Umearen nortasunaren garapenean bost parametro dagoz: afektibitatea, mugimendua, adimena, sormena eta alkar-koitasuna.
- Jostailuak umeari, bere burua, gorputza, erreakzinoak, izakerea, etab. ezagutzen laguntzen deitso. Baita beraren ingurua eta lagun urkoak be.

Erosi aurretik kontuan izan beharreko faktoreak:

- Etxe bakotxeko giroa.
- Hezkuntza moetea
- Neba-arrebarik eukitea
- Norberaren izakerea.

Ez da ahaztu behar, adin bakotxean betebehar edo aspektu ezberdinak lantzen eta garatzen dirana. Hau dala-eta, adin bakotxari jagokon jostailurik egokiena topatu egin beharko dogu. Hori bai, erosketak, nasai eta arineketan ibili barik egin behar dira.

Jostailuen publizitatea egiterakoan, zuzenak ez diran hainbat mezu zabaltzen dira. Jostailu horreen aldeko publizitate



mezuak aztertzerakoan, asko eta asko faltsuak dirana ikusi geinke.

Jostailuaren aurrean gure buruari egiteko itaunak:

- Umearen adinerako beren-beregia da?
 - Jostailu horregaz behin eta barrero ibilteko beste interesik sortuko jako?
 - Materiala egokia da? Luzaroan iraungo dau?
 - Lagunduko deitso umeari beraren irudimena, sormena eta trebetasuna lantzen?
 - Gustora egongo da jostailu horregaz?
 - Urtebete barru gogoko izaten jarraituko dau?
 - Jostailua era batera baino gehiagotara erabili leiteke?
 - Beste pertsona batzuk edo izadia ezagutzen lagunduko deitso?
 - Beste pertsonak errespetatzen, eurokaz berba egiten eta malgutasunez jokutzen lagunduko deitso?
 - Beste sexuko pertsonak bardintzat eta baliotsutat hartzen irakatsiko deitso?
- Azkenik, gurasoek kontuan eukiteko beste aholku bi:

* Gurasoen esku hartzea edozein jostailu baino askoz garrantzitsuagoa da.

* Olgetea bera da, eta ez jostailua, umeeke eta guk behar dogun oparia.

Gorane OLEAGA


Sinistuezina... baina egia

Urtean 100.000 hildako medikuen hutsak dirala eta

Washingtongo Zientzien Akademiak egindako ikerketa batek dinoan lez, medikuen errakuntzak trafiko ezbeharrek baino hildako gehiago eragin dabez. Heriotza kasuen bosgarren arrazoia izan ei da hau Estatu Batuetan.

Horixe, bai, aurrerapena!

Urtarrilean kaleratutako hainbat daturen arabera, 44 milioi estatubatuarrek ez dauke ezelango aseguru medikorik.






*Jaia
99*

Euskerearen




Bakion





ARGAZKIA





Edurra

Gorka ODRIOZOLA

Danok dakigu, Bakio kostaldean eguraldi bigunak edurtze eta izozteak eragindako mikro...

Hogeita hamar urte baino gehiago edurra barriz ikusi ahal izateko. Jazki zuri argitu zan. Hori, bai ezustea Bakion gozatzea. Ganera, ume lehenengo aukerea izango zan. Aurrerantz izan zan-eta. Ni neu be ondo jarri behar ataraten. Ez neban galdu gura izan...

Beste batzuentzako, edurra gauza berririk banatzeko,...

Baina danok pozik bizi behar dugu esakera zaharrak: «EDUR URTE...



Bakion

... mendiz inguratuta dagoan ezkerreko, arrisku gitxiago sortzen dauana eta haren ezaugarri dirana.

... pasatu behar izan dabe, zemendian dan zemendiaren 21ean eguna zuri- da erreza, ez, halango ikuskizunaz orentzako edurra zer dan jakiteko n edurtzea orain dala hamar bat urte eta kanpora urten neban argazkiak ekean XX. giazaldiko azken edurtzea.

... urra be izaten da: beharrean egoteko,

... ze badakizue zelan esaten dauan «ARI URTE».



Argazkilaria:
Jon ARRATE

HORRA! HORRA! GURE OLENTZERO





Urtero lez, aurten be etorri jakun gure Olentzero ilusino eta opariz beterik. Batzuentzako ez zan opari gozorik egongo, baina ondo portatu garanontzako astoa bete-beteta ekarri eban. Bakiora, behintzat, holan etorri zan, idi-burdiaren ganean, eta asto koitadua atzetik, lepoa ganezka ebal.

Urten genduan kalera, betiko moduan, Ondarretik Tabernaldera, txistulariek lagunduta eta Olentzero bitartean joiala. Frontoian herriko umeak abestu eben eta, ostean, Idazlan Lehiaketako sariak banandu ziran, hori guztiori, Olentzeroren begiradapean. Gero, giro ederrean, eskolako gurasoek erretako gaztaina gozoak jateko aukerea euki genduan han egon gintzazanok.





URTE BARRI ON!






INTERNET HOME: etorkizuneko etxeak gaur

Sutean bazkaria prestatzen gabiltzan bitartean, beste gela baten lo dagoan umea jagoten egotea, edo beharretik urtetera gozanean, etxea bero euki daigun, berogailua biztea eta antzeko ideiak daborduko ez dira etorkizuneko ametsak. «Cisco» konpainiak Internet Home dalakoa aurkeztu barri dau European, aukera horreekaz eta gehiagoz.

Gaur eguneko teknologia erabiliz, etorkizunekoak emoten daben etxeak eregi daitezke. Hori esaten etorri da Cisco konpainia, eta, horretarako, Londresen garatu dau prototipo moduko proiektua. Konpainia horrek Londreseko kanpoaldean itxura arrunteko dozena bat etxebizitza eregi dauz, guztiak routen baten bitartez Internetera konektatuak eta Windows NT daukan zerbitzari batez kontrolatuak. Sistema horrerik esker, etxeo hainbat sistema (alarmak, kamerak, berogailuak, eta abar) kanpotik kontrolatu daiekguz nabigatzaile normal baten bitartez. Jakina, etxe kanpotik ez eze, etxe barrutik be kontrolatu ahal doguz, eta, horretarako, etxeo gela bakotxean ordenagailu bat ipini dabe.

Etxearen kontrola egiteko software berezia garatu dabe energiaren erabilerea hobeto kontrolatu ahal izateko. Eta, era berean, gela guztietako



temperatura, argiztapenaren mailea, alarma, etxean ipinitako kamerak eta lorategiko ureztatzea be kontrolatu ahal


izango doguz. Software hori, ganera, itxuraz aldatu daiteke, gura dan etxeo geleagaz behar egin daian.

Londresen egin dabezan etxetxu horreek 125 milioitan saltzeko asmao dauke. Dana dala, inork bere etxea horrelan kontrolatu gura badau, hona prezioak: etxea egiten dabilzan artean, klabeak ipintean 1.250.000 pta. inguruko balioa euki daike, eta sarean ipinten diran ekipoak 5.000.000 pta. inguru. (Argibide gehiago: WWW.CISCO.COM)

**Josu Valiñok Egin eta
Elhuyar aldizkarian argitaratua**

GARUNAREN ONDARRA

Laboratorioko saguak palanka mekanikoa mugitzeko gauza dira pentsatze hutsaz. Lehenengoz, arratoiei palankeari eragin eta janaria lortzen erakutsi eutseen. Aldi berean, giharren mugimendua kontrolatzen daben neuronen jardueria neurtzeko elektrodoak buruan ipinita. Hurrengo urratsa palankearen mugimendua elektrodoei konektatzea izan zan eta arratoiek berehala ikasi eben hankak erabili barik palankeari eragiten, garunaren jarduera hutsaz baliatuta,




hau da, pentsatze hutsaz eragiten eutsoen. Zer esanik ez, hori berori gizakiei aplikatuz gero, itzelezko

ahalmena euki daike tetraplegiko eta antzeko gaixoen komunikazioan, puntu batetik hainbat tresna kontrolatzeko... Igaz izan zan honen antzeko saiakuntza baten barri. Ordukoan, elektrodoa eta irradi transmisore txiki bat garunean eragon eutsoezan tetraplegiko bateri eta pentsatze hutsaz, «telepatiaz» zelan edo halan esateko, kablerik ez egoan eta, ordenagailuko kurtsoa zelan mugitu hasi zan ikasten.

Joseba Terreros

FLOREN ZABALA BARTUREN

45 URTE ITSASOAN



Floren Bartzelonan

Berbalapikoa

ines egin= iges egin, alde egin. (Bakioko berbea)
urpekontzi= urpean ibiltzen dan itsasontzia.
ekatx= itsasoko afontua.
marrazo= tiburoi.

Artetxeko semea dogu Floren. Urte asko ez eze, bizipen asko be beraren lepoaren ganean. Ahor, osterantzean.

TX: Berba bitan laburtu zure bizitzea, Floren.

FZ: Bakion jaio, itsasoan bizi, legorrera etorri ta bizitzeak ines egin.

TX: Azaldu apur gehituago zure bizitzea, gane-ganetik besterik ez bada be.

FZ: Bakion jaio nintzan 1914. urteko zezeilaren 23an. Hamaika urte gaz morroi joan nintzan Durango aldeko Iurretara, jan truke. Han lau urte bete ostean, itsasora, txo lez, mutil txiki lez. Berrogeita bost urte zoriotsu itsasoan. Mundu guztia ezagututen dodala esan neike.

TX: Zelan sortu jatzun itsasorako zaletasuna?

FZ: Anaiarik zaharrena eta lehengusu bat itsasgizonak ziran eta geroari be begiratu behar jakola-eta, etxera be, gurasoei lagunduteko diru apur bat be bialdu behar zala-eta, itsasorako atea zabaldu eustezan. Hilabeteko soldatatzat 24 hogierleko jaso nebazan eta danok pozik.

TX: Oporretan behintzat etorriko zintzazan Bakiora?

FZ: Bai, zera! Oporrik ez dot ezagutu be egin. Opor antzeko batzuk ezagutu nebazan Jobitagaz (Sumusukoa) ezkondu nintzanean. Nire opor bakarrak, emaztea nigaz itsasora ibilaldia egitera etorten zanetan izaten ziran.

TX: Entzun dot urpekontzian be ordu batzuk emon dozuzala.

FZ: Bi mila bat ordu egingo nebazala uste dot. Errez esaten da, baina, urpeko bizitzea gogorra da. Eskerrak, noizik behinean ur azalera igoten genduana, arnasa hartuten, eta lagun onak nebazana.

TX: Hainbeste urtetan itsasoan, abenturak be izango zenduzan, ezta?

FZ: Ez da neure bizitzan dana gozoa izan, ez. Neureak be ikusi behar izan dodaz: ekatx baltzak, marrazoan artean egun latzak, itsasontzi hondatzeak eta alkar joteak, han-horhemen gerrateak... Danetarikoak ikusi behar izan dodaz.

TX: Oporrik ez, baina aurkitu zenduan ba Jobitagaz maitemindu eta ezkonduko astiuneren bat, ezta?

FZ: Jobita Santanagaz 1948. urtean ezkondu nintzan, 34 urte nebazala.

TX: Egia ete da antxinako esakera zahar hau: «portu baxotxean maite bana» ?

FZ: Hau be esakera zaharra da: «esanak eder, eginak lander», etorri ta ikusi.

TX: Zenbat urte gaz jublatu zintzazan?

FZ: Hirurogei ta hamarregaz edo.


TX: Eta orain non bizi zara?

FZ: Bilbon neguan, baina beti Bakiorantz be begira, eta udan Bakion. «Edozein txoriri eder bere habia». Ez dot Bakio lango herririk munduan aurkitu.

Jon Aingeru Goikoetxea

Ez ahaztu! Iragarkia imini daizun, TXIRRITXOLAK lekutxu hau eskainiko deutsu.

ZAHARRAK BARRI



TXIRRITXOLAREN atal honetan Bakioko alde berezi-berezia aurkeztu gura deusuet. Igarriko zenduen lez, eleiza inguruko gunea da, bai. Izatez, Basigo Auzoa lez ezagututen dogu gaur egun, baina lehen Bakioko uria edo urigunea bera zalakoan nago. Jakingo dozuen lez, entzutez behintzat, Bakio lehen «Bakioko Basigo» izan zan, aurreko inguru hori halan izendatuz. Ganera, eleizea bera be han dago.

Toponimiak be halan azalduten deusku. Hor daukagu **Uribe** baserria, beraren izenak dinoskun lez, uriaren behean dagoana dala. Hau da, lehen aitatu dogun Basigoko inguruaren behean, hatan be. Eta, bestetik, han eskoian, lehen Mungiako **Uria** zana daukagu: Gaubeka, Armurua eta Uriarte baserriek egiten daben ingurua. Inguru horrek be uriari buruzko aitamena egiten deusku.

Ez dago ezbairik, ha genduan Bakioko uria, edo urigunea, gitxienez.

Argazki zaharrean ikusi geinken lez, lehen gune itxiagoa egiten eben bertan ikusten diran Eleizaldeak, abadetxeak, Basigok, eleizeak, Prestetoriak eta Etxepintok. Honeetatik, gaur egun, eleizeak, Etxepintok eta Basigok baino ez deutsoe joanaren lekukotasunari eusten, Birjinetxe geroago batu jakela.

Halan eta guztiz be, oso inguru berezia izaten jarraituten dau. Lehengoa ezagutu dabenek halan gogoratuko daben lez.

Nahi ta etxe batzuen hutsunea igarri, Bakioko alde horretan denboreak ez dau oker handirik egin. Hoba horrelan!

Anartz ORMAZA

«Martiko eguraldia, eguzkia edo euria.»

Zelan dauka izena argazkiko Jauregi horrek?



Erantzuna badakizu, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXera. Epea **martiaren 24an** amaituko jatzu. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia.

Erantzuna igarriko dabenen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan



Arteragokoaren erantzun zuzena:

«KURUTZEKOATXE»

Irabazlea: **Aitor Kruzelegi**.

Amen dozuez **Aitor Kruzelegi** eta beraren laguna **TXOBERNE** tabernan afaria mauka-mauka jaten.

TXOBERNE

Berton-bertokoa gozatzeko
leku aproposa
Bakioko txakolina, sagardoa
eta jateko giro ezin hobiau


Tfno.-zkoa.: 94 619 41 81

ESKOZIAKO LOREA

Abuztuaren 14a, zapatu arrunta Edinburghen. Bertako gazte-luaren atarian uda osoan egiten diharduen urteko ekitaldira sartzekotan, Military Tattoo-ren 50. urteurrena ospatzen dabilz.

Arratsaldea, egunak gaurkoz nahiko esan dau-eta, badoa zeru urdin argi-argitik ilunagorantza. Badatoz doinu bandak, atzera eta aurrera, aurrera eta atzera, ibiliaren ibiliaz irudiak euren pausuez egiten, musika lagun dabela.

Ekitaldiak gorantz egiten dau, ilunabarra. Zeru urdin argitik urdin ilunera. Sartu dira Argyll eta Sutherland-eko goiherritarrak. Argiak amatatu egin dabez. Guztiok hasi gara begira gaztelu plaza erdira, gaztelu aurrean argi zuziak besterik ez dago. Bat-batean, Lone piper gaitajoleak berak bakarrik pieza bat jotzen dau, iluntasunetik urten dau. Eta musikaz argia egin da. Han dago, almenen artean. Danok berari begira «Sleep Dearie Sleep» jotzen dau. Maitasunez.



Zirrarak jotzen nau goitik behera eta behetik gora, alderik eta aldera. «Saltire Flying» ikurrak, St. Andrews gurutzea haizeak astindua, Leoi gorriagaz batera, asagoraino naroa, lurrak eta zeruak bat egiten daben lekuraino. Mendebalderantza. Abuztuaren 14a. Gaueko artizarra, tokian tokiko Eskoziako lorea, Bakioko larrosa beilegi dantzaria aidean dira.

Abuztuaren 14a, musika saio hau ikusten nagoan ordu beretsuan, azkenengo urteetan

hondartzan izan naz. Salbearen eguna. Donostiako Salbea entzuten, eta beti itsasoak eta zeruak bat egiten daben lekuan begiak ipinita. Urtero zirrara berak jo nau. Iparraldera begira.

Aurtengoan, gauza bera jazo jat atzerrian, baina bertoko eginik, euskal highlandarra izan naz. Harro, Eskozian eskoziar sentidu naz, baina «Saltire»-gaz batera, geurea, ikurrina, Edinburgheko zerua zeharkatzen ikusi dot. «Sleep Dearie Sleep»-ek gogora ekarri deust. Harro nire herriaz. Baita egun honeetan Edinburgheko teatro ikuskizunak egiten diran kalearen ertz baten txistua eta danbolina jotzen dagoan gazteak be, gure herriko doinuak munduko beste puntan bera zabaltzen ikusita.

Mr. McAhala, eskoziar euskalduna, eskaldun ezkoziarra.

Edinburgh-Bakio

Garikoitz ETXEBARRIA

«Sustraiak han dituenak»

Nekez uzten du bere sorterria sustraiak han dituenak.

Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak ez bada baldo eta oholetan.

Ez du niniak begia uzten ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.

Nekez uzten du gelasak itsasoa, ez hare harriak basamortua.

Ez du liliak udaberria uzten, ez elurrak zuritasuna.

Bere sorterria nekez uzten du sustraiak han dituenak.



J. Sarrionaindia

«Izuen gordeleku barrena» 25 orr.

Berbalapikoa

arrunt= eguneroko, ohiko.

atari= atarte, ategi, ataurre.

Military Tattoo= Edinburghen udan egiten dan ikuskizun militarra.

zuzi= eskuan eroaten dan sudun taketa.

almena= gazteluetan egoten dan babestokia.

zirrara= dartada, bihotzikara.

Saltire Flying= Eskoziako ikurrina.

beretsu= ia berbera.

jazo= gertatu, pasatu.

zeharkatu= hegaz egin, igaro.

baldo= ozpal handia.

nini= betsein.

arrubio= lupu (piztia).

gesal= kresal.

lili= lora.





Barturen Bekoa eta Barturen Goikoa

BARTUREN

Ohi-ohikoa izaten da, gure herrian, baserrien izenen artean «goikoa» eta «bekoa» lango izenlagunak egotea, esate baterako, beraren ganean berba egingo dogun Barturen baserriaren kasuan. Danok ezagututen doguz Barturen Goikoa eta Barturen Bekoa baserriak, eta logikoa dan lez, euren artean zelango edo halango loturaren bat dago. Hona hemen, bada, lotura hori azalduten dauan kontua:

Barturen, izatez, etxe bakarra zan, joan dan XIX. gizaldira arte, behintzat. 1704ko fogerazinoetan Juan de Barturen zanarena zala agertuten da han. Etxe beratan Ursula de Barturen amagaz bizi zan Juan. Gure herrialdean ohi zan lez, etxearen izena eta abizena bat ziran, abizena etxearen izenetik hartuta, ziurrantzean. 40 urte beluago, 1745ean Domingo de Barturen zan baserriaren jaube eta bizilaguna. Hurrengo 50 urteetan, behintzat, bertantxe bizi zan.

Etxea barturendarra izan zan XIX. gizaldira arte. Orduan, herriko abadearena izan zan, barturendarra hau be. Esan behar, aldi haretan, sano abade «ospetsua» izan zala herrian, aurki. Torrezarreko Jose Renteriak erosi ei eutson, nahiko zaharra zan etxe ha. Horrek seme-alaba bi euki ebazan: semea Frantzisko Renteria «Bixer» eta alabea «Eperra» ezizenagaz ezagututen ebena. Etxea jausteko egon zan, «Bixer» eta «Eperra» neba-arrebak ezkontzeko egozan lez. Halan ba, lehenengo-lehenengo etxea bizileku bitan banandutea pentsatu eben. Baina, 6000 erreal gehiagoagaitik, apur gorabehera, bakotzak etxe bana egiteko aukerea euken biok. Eta halantxe egin eben. Etxe bi hareek izan ziran,

bada, Barturen Bekoa eta Barturen Goikoa. Barturen etxe zaharra horreen biorreen arteko solo baten egon zan. Barturen Goikoan, arrebea lotu zan eta bestean, «Bixer» nebea.

Azken hori San Pelaio eta Zubiaurreko kabu-alkatea izan zan eta Uribarriko alaba bategaz, garaitarra, ezkondu zan. Lau seme-alaba euki ebezan. Andrea hil ekion «Bixer»-eri eta Ibarangeluko Akordakoa zan Katalin Obietagaz ezkondu zan bigarrenez, berau Bakion neskame egoala ezagutu eban. Andra horregaz, baina, 7 seme-alaba euki ebazan. Horreetatik, Paula Renteria Obieta jaio zan Barturen Bekoa egin zan urtean, hau da 1895ean. Paula baserrian lotu zan eta osterantzeko 6 neba-arrebak Ameriketara joan ziran. Beste alde batetik, «Eperra» uriartetar zalako bategaz ezkondu zan. Eta semea eben Patxo Uriarte lotu zan, geroago, Barturen Goikoan. Orain, azken honen ondorengoak bizi dira bertan.

Barturen Bekora atzera etorrita, Paula Renteria izeko «Eperra»-ren senarraren lobeagaz ezkondu zan. Madalen Uriarte eta Garaiko Jose Ormaza «Txiki»-ren semea zan Gregorio Ormazagaz. Zortzi seme-alaba hazi ebezan eta, gaur egun, Paula eta Gregorioren hurrengo belaunaldikoak bizi dira bertan.

Hauxe da bitan banandu zan baserriaren kontua. Bitan banandua izan arren, biek izen bera daroe, jatorrizko izenak oraindikarren bizirik dirauala: BARTUREN.

Anartz ORMAZA

«Saldua, galdua.»

BAKIOKO EUSKEREA - VIII

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !

Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi behar dan: “edur-uria”
- Bakion zelan esaten dan: “(edur-uridxe)”

EDUR TA EDUR

Edurraren ganerako hurrengo berbak eta esakuneak batu doguz Bakioko euskeran. Egon be, gehiago egongo dira, ziur. Halan bada, dakizuezan berba edo esakuneok geuri esateko eskatu gura geunskizue ametik TXIRRITXOLAtik.

- edurra (*edurre*)
 edur-uria (*edur-uridxe*) = edur-bustia.
 euri-edurra (*euri-edurre*) = edur-bustia.
 edurra da (*edurre da*)
 edurra egin dau (*edurre ein dxeu*)
 edurra dakar (*edurre dakar*)
 edurtuta egon (*edurtute on*) = edurrez estalduta egon.
 edurtzea (*edurtzie*)
 edur-zehea (*edur-zie*) = edur-euri eta edur-matearen artekoa.
 edur-matea (*edur-matie*) = edur malutea, edur-lumea.
 edur-bolea (*edur-bolie*) = edur lumea baino handiagoa.
 edurra fara-fara egin (*edurre fara-fara ein*) = edurra astiro-astiro egin.
 edurra zara-zara egin (*edurre sara-sara ein*) = edurra astiro-astiro egin.
 edurra firi-firi egin (*edurre firi-firi ein*) = edurra astiro egin.
 edurra ziri-ziri egin (*edurre siri-siri ein*) = edurra astiro egin.
 edurra zarra-zarra egin (*edurre sarra-sarra ein*) = edurra eurrez egin.
 edurrak behea loditu (*edurrek beie loditxu*) = edurra eurrez egin.
 edurra plasta-plasta egin (*edurre plasta-plasta ein*) = edurra eurrez-eurrez egin.
 «edur urte, gari urte» («edur urte, gari urte») (errefraua)



Iniaki MARTIARTU

**Bakioko Surf Taldeko idazkaria dan Jokin Arroyo Uriartegaz
berbalditxu bat euki dogu eta berak azaldu deusku gitxi
gorabehera zeintzuk diran euren eginkizun eta helburu nagusiak.
Holan, askorentzat ezezaguna izango dan Bakioko kirol talde
hori hobeto ezagutuko dogu.**

BST: Bakio surf taldea

TX: Zelan eta noz sortu zan BST?

Jokin: Bakioko haretzea eta surfa guretzako garrantzitsuak dira, eta gure asmoa surfa lantzea eta gure atzetik datozen gaztetxuei laguntzinoa emotea da, eta horren ondorioz sortu zan gure taldea 1995ean. Haretzeak euki leikezan eraginek be arduratuten gaitue. Igaz, esaterako, harearen arazoaren inguruan hor ibili ginen mugituten.

TX: Zelan zagoze egituratuta eta zenbat zaree inguru? Zenbat bakiotar?

J: Alkarte normal baten modura gagoz egituratuta, hau da, lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta bokalak daukaguz, baina batzarretako eztabaida guztietan bazkide guztiok hartuten dogu parte. Momentu honetan, 172 bazkide gara. Horreetatik berrogeita hamar inguru boogiegaz dabilzanak izango dira eta beste guztiak surflariak dira. Herrian erroldatuak erdia baino gitxiago izango gara, baina bazkiderik gehienak, udatiarrak izateaz ganera, neguan be asteburuero datozanak dira eta euretariako asko bakiotar sentiduten dira.

TX: Zeintzuk dira urtean zehar egiten dozuezan eginkizunik nagusienak?

J: Ulertuko dozuenez, gehien bat udaroan izaten dira. Herriko txapelketea antolatuten dogu urtero. Gaztetxuak eroaten doguz kanpoko txapelketetara eta holan, eurei gauzak erreztu egiten deutseguz. Joan dan udan Europa mailako txapelketea egin zan Bakion. Horrek guztiorek esan gura dau Bakioren izena komunikabide eta leku askotan agertu izan dala. Beste ekintza garrantzitsu bat surf ikastaroarena da, eta esan behar da, joan dan udan horretan neskak izan dirala mutilak baino ugariago. Horrezaz ganera, urtarrilean eskiatzera joateko txangoa egongo da, BSTk diruz lagundutakoa izango dana.

TX: Orduan, gure herrian surfaren etorkizuna ziurtatuta dago, ezta?

J: Baietz esan geinke. Bazkideen artean gehienak mutilak dira, baina badatoz neska gaztetxuak be atzetik. Jazoten dana da, surflari moeta bi dagozala: bata, urte guztian zehar uretan sartuten dana eta bestea, surfa udan baino egiten ez dauana. Surfak daukan arazo bakarra, material garestiarena da, gazteen-tzako batez be. Baina hori guztiori hasikeran jazoten jakun gauzea da.

TX: Laguntasunik jasoten dozue?

J: Bai, laguntzinoa Federazioak eta Bakioko Udalak emoten deuskue eta gero guk geure kontura ataraten doguna, hau da, jaietako txosnan, salduten doguzan zapatila eta sudaderak, eta abar.



TX: Zein da zeuon eritxia haretza inguruan egiten diran behar eta proiektuetaz?

J: Azkenean, norberak eritxiak daukaz, baina neure ustez, esaterako, haretzako ibilbidea nahiko ondo lotu da eta harearen arazoa be hor egon da. Orain kirol portuaren proiektua dago. Nik uste dot nahiko gatxa izango dala egitea, baina, seguruenez, guretzako ezinbestekoak diran olatuei kalte handia egingo deutse.

TX: Eskerrik asko Jokin eta hurrengora arte.

(Argazkia: J.M. Luke)

Unai BEITIA

ALAITASUNA albisteakaz

2000. urtean be, 1999an hasitako erronkeari eutsiko deutoe. Oporraldiaren ostean, bigarren fasea hasiko dabe, esate baterako:

eskupeletan: umetxuak ... hiru bikotetan
umeak bikote bakarrean
gaztetxuak bikote bakarrean
palan: gaztetxuak bikote bakarrean
gazteak bikote bitan

Lau, bost eta sei urteko umeek psikomotritate jokoak eukiko dabez. Nagusiak, ostera, «El Corte Inglés» dalako txapelketatik kanpo lotu ziran. Urte barriagaz batera «Gabonetako III. Eskupeleta Txapelketea» jokatu eben. Daukezan asmoetariko bat «Gomazko Pelota Txapelketea», lehenengoaren ostean, herrian eratutea izango litzake. San Joseko «24 Orduak» txapelketearen antzera, gomazko txapelketeak badaualako herritar askoren artean arrakastea.

ITXAS-ALDEren barriak

Aurtongorako, horman eskegiteko urteko egutegia atara dabe. Inork egutegia eskuratu gura badau, doala taldekoakaine eskatuten. Garagarriaren 8tik 10era Frantziako Niemesen izango dira euskal folklorea zabalduten. Hurrengo hilean, agorrilaren 7tik 10era, Bulgariako uriburua dan Varnara joango dira dantzan egitera. Bien bitartean, Bakion egin ohi dan Nazinoartecko Folklore Jaialdian Eskoziako talde bat ekarriko dabe aurtan.

ABESBATZA albiste

Abenduaren 26an, Gabonetan, meza nagusian abestu eben abesbatzakook, bertan Txikien Abesbatzak be esku hartu ebal. Txorierriko Gabon Kantan kontzertuetan be izan ziran, abenduaren 30ean Lezaman eta urtarrilaren 5ean Derion, izan be.

Datorren udabarrian, BBK-ak babestutako Udabarriko Kontzertuak dalako ibilbide horretan, maiatzaren 6an Zierbenan, maiatzaren 20an Zornotzan eta bagilaren 3an Bakion abestuko dabe. Lekeition be abesteko dira.

Gurasoen alkartearen barri

Urkitzako Gurasoen Alkartea aztertzen dabil zein izan leiteken urte biko umeentzako gela abian ipinteko prozedura. Aita-amen asmoa da, hezkuntza ordezkarietara honen inguruko eskabidea bideratzea eta udalagaz hartuemonetan paratea. Ikastetxeaz arduratzen dan ikuskatzaileak oneritxia emon deuto proiektu honeri.

BAKIO KIROL TALDEaren barriak

Bakio Kirol Taldea denboraldiaren hasieran markatutako helburua lortuteko bidean dago, hau da, bertoko gazteei aukerea emonda, maileri eustea.

Gaur egun, txapelketearen lehenengo zatia amaituteko dagoanean, 18 puntugaz hamairugarren lekuan jabilku taldea. Bost partidu irabazi eta beste hiru bardindu dabez daborduko, zortzi partidu galdu eta gero.

Zuzendaritzak, helburua lortuko dala uste arren be, jokalariei ahalegin apur bat handitxuagoa egiteko eskatu deutse, ze zaletuen laguntzino handirik ez ei dabe igarriko Zubiatur football zelaian.



Xiberoko Maskaradea

Xiberoan aratoste aldia bertan baino luzeagoa eta biziagoa izaten da. Urtarrilean hasi eta apirilera arte irauten dau. Bertako aratostea edo inauteria Maskarada izenez ezagutzen dogu. Maskaradea antzerki-dantzaldia da eta domekaro herririk herri eroaten dabe Xiberoan zehar eratzailiek. Maskaradearen oinarriak dantzak eta Pitxuren heriotzea ta biztea dira. Aurtongo Maskaradea Atharratzeko gazteek eratu dabe eta hurrengo herrietara eroango dabe ikuskizun:



urtarrilaren 23an Atharratzen
urtarrilaren 30ean Ligin
zezeilaren 6an Eskiulan
zezeilaren 20an Muskildin

zezeilaren 27an
martiaren 5ean
martiaren 19an
apirilaren 23an

Arrokiagan
Altzürükün
Garindainen
Barkoxen



Sinistuezina... baina egia

Bihotzekoak jotako gabonak

Bihotzaren ganeko Estatu Batuetako Alkartearen esanetan, gabonetan heriotzarik gehien eragiten dauan gaixotasuna infartua da. Hauxe bai, benetako 2000. urteko efektua!

Errusian galazota dago etxeko maskotak jatea

Ohitura gastronomikoa? Krisi ekonomikoaren ondorioa?... Kontua da, Guennadi Seleznirov Errusiako Dumako buruak etxeko maskotak jatearen aurkako legea atara barri dauala. Arau barriak, zehatz-mehatz, maskotak okelatarako edota narruak janzteko erabiltea galazoten dau. Animalien eskubideak mesprezatu barik, non dagoz Errusiako armadak zapaltzen dauazan herritar txetxeniaren eskubideak?

Guzur errukitsuak

Linzeko (Austria) ginekologia etxe bateko mediku laguntzaile batek bost urtean barrena faltsutu dauz gaixoeke minbizia eukela azaltzen eben zitologiak. Antza, hori guztiori horrelantxe egiten eban, gaixoenganako errukia zala eta.

Lau lagun indartsu (euskal ipuin zaharra)

Munduan beste asko lez, Susubil herrian mutil gazte indartsu bat bizi ei zan. Gihartsu zan haren izena.

Behinola baten, Gihartsuk hamalau arroako burdinmakila eskuetan hartu eta ludi zabalera urten ei eban, bazterrak ikusteko asmotan. Joan ta joan, ibili ta ibili, gizon indartsu bat aurkitu eban, hatx handi bateri eusten eutsola.

- Zertan zabilz, gizon indartsu?, itandu eutson Gihartsuk.
- Herriaren ganera jausi ez daiten, hatx honeri eusten nago hemen, erantzun eutson gizonak.

- Ez zara makala. Zatoz neugaz, inotson Gihartsuk.
Biak joan ta joan, ibili ta ibili, ehiztari bat aurkitu eban, errotarian oin bat sartuta eukala.

- Zergaitik zagoz horrelan, ehiztari arin?, itandu eutsoen.
- Ni arinegia naz eta erbiei aurrea hartuten deuset, eta erbien neurrian lasterka egiteko, errotarri hau astungarritzat hartu dot, erantzun eutsen.

- Ez zara astuna. Zatoz geugaz.
Hirurak, Gihartsu, Indartsu eta Ehiztari, joan ta joan, ibili ta ibili, olagizon bat aurkitu eban bere agoko arnasaz putz egin ta putz egiten egoala.

- Zertan zagoz, olagizon?, itandu eutsoen.
- Nik neure agoko arnasaz zazpi errota eta hiru olari, ibili daitezcan, indarra emoten deuset.

- Ez zara txatxarra, olagizon. Zatoz geugaz.
Laurak, Gihartsu, Indartsu, Ehiztari eta Olagizon, joan ta joan, ibili ta ibili, Galiporniako erreinuaren uriburura heldu ziran.

Izan be, herriko jaiak ziran eta herri guztia soinu ta dantza, pozez eta alaitasunez jaietan egoan. Baegoan han aldarte onik. bada! Jaietako olgetarik ederrenak txapelketak ziran eta baita sariak be ezin hobekak ziran.

Lehenengo txapelketea lasterketea zan: arinetan ea nor lehenengo izan. Txapelkun katanarrua, urregorritz beterik, hartuko eban saritzat. Lasterketea hasi zanean, gure Ehiztari arinak, beste korrikalari guztiak sei legoa atzean itzi eban. Hareen arnasestua Ehiztariren atzetik! Urregorritz betetako katanarrua gure Ehiztarirentzako izan zan.

Aan ikusten zan, zelai erdian, hogeie arroako harri astuna, nork gehiagotan leporaino jasoko ete eban begira egoala. Lepora gehiagotan jasoten ebanak ardinarrua, urregorritz beteta, izango eban saritzat.

Galiporniako gizonik indartsuenak etorri ziran, baina ahalegin guztiak eginda be, ezin izan eban, ezta behin be, harria leporaino jaso.

Orduan, gure Gihartsu zelai erdira joan zan, garrikoa ondo estutu ostean eta behearen ganean makurtuta, hogeie arroadun harrizarra hartu, lepora jaso eta hatzamar txikiak, pelotea balitz lez, lepo inguruan bira-biraka erabili eban. Hango txaloak eta hori dok eta!, hori dok eta! gedarrak!

Berbalapikoa

gihartsu= indartsu, bulartsu.

arroa= pisu-neuria. (11,5 kilo gitxi gorabehera)

ludi= mundu.

ehiztari= ehizari, ehizan (kazan) egiten dauana.

txatxar= makal, hutsaren hurrengo, ezgauza, kakanarru.

uriburu= uririk nagusia. (Bizkaiko uriburua Bilbo da)

aldarte= umore, gogaldi, aldi.

katanarru= diruzorro, zisku, dirua eroateko zorrotxua edo sakela.

Harriaz nahiko olgatu ostean, behearen ganean itzi eban Gihartsuk eta erregearengana joan zan, irabazitako saria hartutera joan be. Ardinarrua, urregorritz bete-beteta, emon eutson, bada, Galiporniako erregeak.

Lau lagunak, Gihartsu, Indartsu, Ehiztari eta Olagizon poz-pozik egozan.

Hirugarren txapelketea sokatirea zan eta Galiporniako erregeak idinarrua emongo eban saritzat, urregorritz goraino beteta, jakina.

Soka luze bat zelaira ekarri eban eta erdian zapi zuri bat lotu eutsoen. Sokamustur baten Galiporniako ehun gizonik indartsuenak jarri ziran eta bestean hatxari eusten eutson gure morroskoa.

Galiporniako herritarrek, bitartean, Indartsuri barre egiten eutsoen:

- Erbesteko gizon horrek, gure gizonak oilolumak dirala uste izan ete dau?

Epaileak turtea jo eta indarketea berehalan hasi zan.

Lehenengo bultzakadan gure morroskoak, Galiporniako ehun gizonak, dandarrez, bere aldera ekarri eban. Hango gorak eta hango txaloak! Hori dok, hori, mutil! Erregeak idinarrua, urregorritz beteta, emon eutson.

Gure lau lagun indartsuak, katanarrua, ardinarrua eta idinarrua bizkarrean hartuta, pozaren pozez, etxerantza abiatu ziran.

Baina orduan, Galiporniako gizonak, erbestekoek urregorri guztia irabazi ebela eta, bekatxez erreta, erregearengana joan ziran, gure gizonok lapurrak zirala salatzeraz joan be.

Erregeak sinistu egin eutsen eta mila bat gudari bialdu eban gure mutilen atzetik, suiskilu, kanoi eta guzti.

Hainbeste iskiludun gizon, suiskilu ta kanoiekaz, euren aurka etozala ikusita, lau mutilok ikaratu egin ziran. Baina Olagizonek euren lagunei holantxe esan eutsen:

- Ez ikaratu. Geldi egon bertan. Itzi neure gan oilobusti horreek. Neuk badakit zer egin!

Eta agoa harriz bete eban, hatsgora arnasea hartu, birikiak haizez bete eta bere paparreko auspoen indar guztiaz PUTZ! egin eban.

Halako kanoi indartsurik ez da egundo be ikusi! Harek jaurtiten eban danbadak eta bunpadak!

Gure lagunak, Gihartsu, Ehiztari, Olagizon eta hatxari eusten eutson Indartsu, katanarrua, ardinarrua eta idinarrua urregorritz beteta lepoan hartuta, bakotxa bere etxera joan zan.

Handik aurrera aberats eta zoriontsu bizi ei ziran.

Hori holan bazan,

sartu daitela kalabazan.

Eta urten daijala

Makatzeko iturrian.

Iniaki MARTIARTU

legoa= luzera-neuria. (itsasokoak 5.555m daukaz, legorrekoak 5.572m)

arnasestu= itobehar, arnasbehar, itoaldi, itomen.

ardinarru= katanarrua baino handiagoa.

idinarru= ardinarrua baino handiagoa.

erbesteko= beste herri batekoa.

indarketa= indarrak neurtuteko norgehiagoka.

suiskilu= zizpa, eskopeta.

iskilu= arma.

oilobusti= odolbako, bildurti, koldar.

hatsgora= arnasea hartukeran.

danbada= dunbots, eztanda, tiro.

bunpada= dunbots, eztanda, tiro.

BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA



Olentzerok urte barrirako liburu mar-
doa ekarri deusku. Nobela barrietaz ga-
nera, labatik harakoa dan MELOCOTO-
NES HELADOS, Espido Freire (erde-
raz), esaterako. Aita-
tzeakoak dira argaz-
kigintzako liburu

pare bat, datorren udako argazki lehiaketea prestatzeko beren-beregiak. Ganera, sukaldaritza eta horren ingurukoak jorratzen dabezan liburu bitxiak ekarri doguz. Ahor azaltzen deuskue ardaoak zelan aukeratu, kafeak, puruak....zelan prestatu, mahaia zelan jantzi, etab. Estadistika, astrologia, mendiko meteorologia, psikologia, dekorazioa eta medikuntza alternatiboa be dira liburu barriek jorratzen dabezan beste gai batzuk.

Dana dala, hona hemen liburu go-
mendagarri bi, hainbat liburu inte-
resgarriren artean aukeratzea gatx-gatxa izaten da-eta:



SEDA, Alessandro Baricco. Nobela txiki honetan maitasunezko istorio bitxia kontatzen da. Izenburuko zetea-
ren leuntasuna irakur-
learen garunean sar-
tuko da eta istorio magiko honek harra-
patuko dau irakurlea hasikeratik.



TXORAKIKERIAK, Kike Amonarriz eta Xabier Telleria. Li-
buru honetan era biko umore eskaintza egin deuskue. Batetik, Ki-
keren txisteak eta pertsonaiak. Bestetik, Txiskola programeak sortutako nazino-
arteko txiskeriak, ti-
mologiak, santutegi bereziak, etab. Hizkun-
tzeagaz eta berbakaz olgatu egiteko aukera parebakoa eskaintzen daben atal bar-
ritzailak dira.

Liburu honek Kultur Etxeko libu-
rutegian irakurgai daukazuz. Erdu gurera!

MUSIKEA

HIDROMATICS, GUERRILLA ZEN eta HELLAOPTERS

Aupa lagunok! Zemendiaren lehenengo egunean Bilboko Kafe Antzokian ikusi ahal izan genduan kontzertuaren kontakizunakaz nortzue, musika txokoaren bigarren emonaldia honetan. Bertan, hiru talde Norvegiar izan ziran entzun eta ikusgai.

Alde batetik, **HIDROMATICS** taldeko musikari beteranoak, «Redezvous band» taldean ibilitakoak, Nick Royale **THE HELLAOPTERS** taldeko gitarra-bateria jolea eukela. Bitartean, «Guerrilla Zen» talde ezezagunak jo eban. Eta bestetik, kontzertu burua zan **THE HELLAOPTERS**, euren azken lan bikaina «Grande rock» aurkeztu euskuen.

HIDROMATICS taldekoek hasi ziran euren rock klasikoak jotzen, ordu erdiko jardunean, eta Redezvous bandearen «City Slang» kantuagaz amaitu eban. Esan behar da, azken hau izan zala entzuleriak emonkizun osoan gogokoan izan eban kantua. Ez zan abesti itzela izan, baina bai oso egokia gau hareri hasikerea emoteko. Bigarren taldea, **GUERRILLA ZEN** izan zan, askorentzat ezezagun egiten jakun taldea, eta itzelezko ezustekoa emon euskun. Ederto baten astindu euskuezan belarriak euren rock'n roll basatiaz. Zurtz eginda itzi ginduezan, ahotsen kalitateak eta abeslariaren jokabideak agertokian. Gitarra jolea oso trebea zan eta gogor astintzen ebazan beraren gitarra zoroaren kordelak. Oinarri erritmikoa be neurrian egon zan. Estiloari jagokonez, talde honek «Mudhoney» gogoratu eragin euskun, baina estilo rockeroago batez, beharbada. Izerdiz bateta itzi eban aretoa. Entzuleriaren txalo beroak eta barrero joteko eskakizunak jaso ebezan. Halango azken erantzunik ez da ohikoa izaten jendearen aldetik, azkenengo taldearen ekitaldia amaitutakoan, batez be.

Azkenik, **THE HELLAOPTERS** taldekoak agertu ziran, aurrekoen lana hobetu guran, eta ez eban hutsik egin, halangorik ez dabe-eta inoz egiten.

Ia ordu biko tarte baten jo eban, jendearen eskakizunei jaramon eginda, «bis» bi jo eta gero. «Grande rock» diskako abestiez ganera. «Supershitty to the max», «Paying the dues» eta «Dissapointing blues» disketako abestiak be jo ebezan. Entzuleriak abestirik ezagunenak be abestu ebazan. Hormak be izerditan egozan, Nick Royaleren mutilen indarrari eutsi ezinik. Ha belauniko behearen ganean dandarrez ibilita, itzelezko punteok ikusi eta entzuteko aukera ederra izan genduan. Berban bitan, **THE HELLAOPTERS** taldearen rock'n rollak dardarka itzi ginduzan eta ahaztu ezineko gaua bizi eragin euskun.

Halan da ze lagunok, musikarako dirurik gordeta badaukazue eta goi mailako rock'n rolla gogoko badozue, «Grande rock» erosi eizue, punck-rocka gustatzen bajatzue «Paying the dues» gustatuko jatzue. Ala osterantzean, Camilo Sestoren diskaren bat beharbada?

Etor Duoandikoetxea

FILMA

«La lengua de las mariposas» (1999)

Jose Luis Cuerda zuzendariaren film hau Espainiako gerra zibilaren aurreko hilabeteetan egokitutako dramea da. Fernando Fernán Gómezek ezin hobeto egiten dau sasoi haretako liberal eta izadiaren maitale dan maisuaren jokoa. Berak ikasle dauan «Moncho» umeagaz sortutako hartuemonna da filmearen ardatza. Hau da, gazteak daukazan zalantzei eta jakingureari erantzuteko maisuak iminten dauan jakituria. Hau guztiau errepublika haren sasoi gogorrenetan ezin hobeto egokitu dau zuzendariak. Gero gerrea etorriko da eta hantxe hondatuko da herriaren askatasun egarri guztia.

Unai BEITIA

TXIRORIK TXIROENA

Diruduna genduan,

diruduna Don Juan:

dirua hemen,

dirua hor,

dirua han...

Baina oso pobrea zan.

Dirua baino besterik ez eukan

Mikel ZARATE

BAIKOR ETA EZKOR

Erdi beterik
ta erdi hutsik

zatoa;

ezin hobea

ta indargea

ardaoa;

bero, ausarti,

epel, bildurti,

gogoa;

Baikor ta Ezkor

biok mozkor.

Mikel ZARATE

Eskerrik asko etorteagaitik!



KAFETEGIA

Benta Alde, 75

Bekabarri

Tfnoa.: 94 619 40 59

Sabin'en
Jatetxea

Benta Alde, 72

Estibaliz

Tfnoa.: 94 619 40 41

48130 BAKIO

datozanak

Negua kultura ekintzetan urria ei dala. Ka! Hona hemen, osterantzean, aurtongo lehenengo hiru hilabeteotan Euskal Herrian han-hor-hemen egongo diranak. Ez dira ahuntzearen gauerdiko eztula lakoak, gero! Gozatu eizuz.

U R T A R R I L E A N

- San Antonio Eguna**, urtarrilaren 11an, Urkiolan.
San Antontxu Eguna, urtarrilaren 18an, Mungian.
Nazinoarteko Ikus-entzunezkoen Jaialdia, urtarrilaren 18tik 23ra, Miarritzen.
Danborradea, urtarrilaren 19tik 20ra, Donostian.
Hartzaro Jaialdia, urtarrilaren 21etik 24ra, Uztaritzen.
Maskaradea, urtarrilaren 23an, Atharratzen.
Musiketan, urtarrilaren 25ean, Bilbon.
Inauteriak, urtarrilaren 27tik zezeilaren 4ra, Ituren eta Zubietan.
Bertso Eguna, urtarrilaren 29an, Donostian.
Zinema Euskeraz, urtarrilaren 28tik martiaren 31ra, Iruñean.

Z E Z E I L E A N

- Maskaradea**, zezeileko domeketan, Zuberoan zehar.
San Blas Eguneko Azokea, zezeilaren 3an, Abadiñon.

barregaiak

Logurarik eza

-Zelan doatzu logurarik eza? Egin dozu lo egiteko esan neutsun zenbaketea?- itandu eutson osagileak gaixoari.
 Bai, osagile jauna -erantzun eutson gaixoak. 24.534gino zenbatu neban, eta ogetik jagiteko ordua zan.

Barraskiloa eta dortokea

Kalea alde batetik bestera igarokeran, dortoka batek, daun!, barraskiloa eraso dau. Bere senera etorri eta, zer jazo dan itandu deutso barraskiloak dortokeari.
 -Ez dakit. Dana hain arin jazo da, ze... -erantzun deutso dortokeak.

- Santa Ageda Bezperea**, zezeilaren 4an, Bakion.
Zaharkinen Azokea, zezeilaren 18tik 27ra, Bilbon.
Musiketan, zezeilaren 24an, Bilbon.
Kaldereroak, zezeilaren 26an, Donostian.

M A R T I A N

- Maskaradea**, martiko domeketan, Zuberoan zehar.
Basatoste, martiaren 5ean, Bizkaian zehar.
Aratosteak, martiaren 2tik 7ra, Bilbon.
Aratosteak, martiaren 5ean, Zaldudon.
Inauteriak, martiaren 5etik 7ra, Lantzen.
Aratosteak, martiaren 5ean, Mundakan.
San Jose Eguna, martiaren 19an, Bakion.
Musiketan, martiaren 8an eta 25ean, Bilbon.

Espetxean

Espetxeko zuzendariak etorri barri dan atxilorik dinotso:

-Hemen, bakotzak ogibide bateri ekin behar deutso. Zein izango da zure aukerea?

-Neurea, etxerik etxeko saltzailea izan daiten gura neuke.

Berbalapikoa

zenbatu= zenbakiak bata bestearen atzean esan.

barraskilo= karakoil.

dortoka= tortuka.

igaro= alde batetik bestera joan, zeharkatu.


jazo= pasatu, gertatu.

espetxe= kartzela.

atxilo= preso.

badaezpadako jakingarriak

	telefono zkia.	fax zkia.
Udaletxea _____	94 618 40 01	94 618 31 18
Turismo Bulegoa _____	94 619 33 95 / 5702	94 619 31 61
Kultur Etxea _____	94 619 33 69	94 619 31 18
Osakidetza (osagilea) _____	94 619 42 07 / 4026	_____
Udaltzaingoa _____	656 788 623	94 619 31 18
SOS Larrialdietarako zerbitzuak (SOS Deiak) _____	_____ 112	_____
Taxia _____	609 443 933	_____
Abadea (beheko eleizea) _____	94 619 43 15	_____
Botikea _____	94 619 44 72	_____
Autobusa (Bizkaibus) _____	94 454 11 35/05 44	_____
Suamatatzaileak _____	94 492 28 00	_____



ezetz jakin!

JULEN tailerra

Zerbitzu bizkorra

Neumatikoak

Gas-tutuluak

Orioa aldatzea

Balazta zapatak

Beherapen ederrak

Artza Alde, 8
Tfnoa.: 94 619 48 97
48130 BAKIO

Itsasargi Kafetxea

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 47 86
48130 BAKIO



Txomin taberna



HERRIKO KIROLAREN ALDE
Goitisolu Alde, 34 - Tfnoa.: 94 619 40 70
48130 BAKIO

UR-ZABAL TABERNEA

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 43 05
48130 BAKIO



GOTZON Jatetxea

Benta Alde, 135
Tfnoak.: 94 619 40 43
94 619 43 30
48130 BAKIO

Maria Jesus BIDASOLO MARLOI'ko JANARIDENDA



Benta Alde, 169 - Tfnoa.: 94 619 30 06
(eskukoa) 606 50 68 26 - 48130 BAKIO



PATXI HARATEGIA URDAITEGIA

Benta Alde, 171
Tel. eta Faxa: 94 619 40 08
(eskukoa) 606 45 09 25 - 48130 BAKIO



Atzera begira

Argazkion bederatzi morrosko gazte ikusi leitekez. Gazte sasoiari, Bakion zein herritik kanpo, alkarregaz ibiltzen ziran, lagun artean ibili be. Basorik baso, herririk herri, jairik jai, beti alkarregaz eta alaitsu. Gazteak gazte. Hemen doguz, bada, Urizarretan, 1941. edo 1942. urtean, Sanjolazetako Eneperi Egunean.

Ezkerretatik hasita honeexek dira:

1. Raimundo Barturen (ZAITUA BEAZKOA)
2. Joan Arrugaeta (URIBARRI)
3. Migel Renteria (TORREZAR)
4. Maximo Zabala (BASIGO)
5. Jose Mari Ugalde (GARAI)
6. Rafael Garai (ARDANTZA)
7. Mario Zabala (BASIGO)
8. Bitor Santana (SUMUSU)
9. Joan Garai (BENGOLEA)

(Argazkia: Enrike Zabalak itzita)

